

HERIOTZARI BELDURRA

Laia, Euskal Herriko kostaldeko herri txiki batean bizi den 16 urteko neska gazte bat da. Betidanik gustatu izan zaio lagunekin denbora pasatzea eta arriskua. Baina orain gauzak aldatu egin dira, heriotzari beldur handia diolako.

Denok daukagu heriotzari beldurra, izan ere, inork ez du nahi pentsatzea egun batean hil egingo dela eta inoiz gehiago ez duela gauza gehiago egingo. Beraz, jende askok gauza arriskutsuak egiten ditu, bizitza bakarra dela argudiatuz. Baina beste pertsona batzuk, ez dute arriskurik hartzen, heriotzatik gertu ez egotearren, hauetako bat Laia da. Laiak orain dela 2 hilabete istripu bat eduki zuen, eta heriotzetik oso gertu egon zen, 20 egun igaro baitzituen koman. Istripua udako arratsalde batean gertatu zen, hondartzan, Laia bere lagunekin zegoenean.

-Altuera hau oso txikia da, Laia, gutxienez hor goiko harritik egin salto - esan zion Laiari mutil batek.

-Adosss, hor goitik egingo dut salto, segurua izango da, ez? - galdetu zuen Laiak.

-Bai, noski ez duzu beldurra edukiko ez?- erantzun zion mutilak.

-Laia, Laia, Laia, Laia!- animatzen zioten beste lagunak.

-1, 2 eta 3! Banoa...!- garrasi egin zuen Laiak airean zoan bitartean.

-Ayyyyyyyyy!!!!-egin zuen garrasi Laiak, burua harri baten kontra jo zuenean.

-Laguntzaaa! Laiaaaa! - oihukatu zuen Lurrek.

Koman 20 egun egon eta gero ospitalean hilabete bat egon ondoren, garun konmozioagatik, Laia eta bere ama Itsaso, etxera itzuli ziren. Biak bakarrik bizi ziren bertan, Laiaren aita Laiak 2 urte zituenean etxetik joan baitzen bizi hobe baten bila. Laia etxera sartu eta berehala bere logelan giltzapetu zen eta mahaian zegoen argazki bat hartu zuen, bertan Laia Lurrekin zegoen, bere lagunik onenarekin. Laiaren logela, paretetan zintzilikatutako argazkiz beteta zegoen, lagunekin egindako argazkiak, olatuen argazkiak, Laiaren saltoen argazkiak... Bat batean, eskuan zeukan argazkia lurrera bota zuen eta paretetan zintzilikatutako denak ere. Ondoren, lurrean zeuden argazki guztiei ostikoka hasi zen, argazki denak txikituta utzi arte. Hori eta gero argazki horiek guztiak zabor poltsa baten sartu eta korridorean utzi zituen.

-Laia! Bisita bat daukazu! - esan zion Itsasok Laiari irribarretsu.

-Esan amonari bakarrik egoteko gogoia daukadala- aitortu zion Laiak bere amari burua atetik ateratzen zuen bitartean.

-Ez naiz zure amona Laia, Lur naiz, zer moduz zaude? - esan zion Lurrek Laiari lotsati samar, Laiaren logelara hurbiltzen zen bitartean.

-Joan hemendik, ez dizut gehiago ikusi nahi! - egin zion Laiak garrasi.

Lurrek hori entzuterakoan, buelta erdi eman zuen, etxetik irteteko asmoz. Pasillotik zihoala, zabor poltsa bat ikusi zuen lurrean eta zabor poltsatik pixkat irtenda zegoen argazki bat ikusi zuen. Guztiz txikituta zegoen, baina hala ere segituan jakin zuen ze argazki zen. Laiak 15 urte bete zitueneko bien argazki bat zen, beti esaten zuten hori inoiz atera zuten argazki onena zela. Lurrek hori ikusi zuenean, begietatik malko bat atera zitzaion, eta korrika etxe hartatik irten zen.

Arratsalde hartan Lur lagunekin gelditu zen, eta goiz hartan gertatutakoa kontatu zuen. Denek Laia buruan hartutako kolpearen ondorioz zoratu egin zela zioten. Lurrek, aldiz, bazuen esperantza txiki bat dena berriz lehen zen modukoa izatera pasako zela. Baina bere buruak behar bada bere lagunek arrazoia zutela esaten zion.

Hori pasa eta gero, Laia negarrez hasi zen, sakonetik kalera irtetzea eta lagunekin egotea nahi zuelako. Baina bere beldurrak hori egitea eragozten zion, ez zuen nahi berriz bere burua arriskuan egoterik, eta heriotzetik hain gertu egoterik. Hau da, heriotzari izugarrizko beldurra zion. Momentu hartan espero ez zuen zerbait gertatu zen.

-Tak-entzun zen, zerbaitek leihoaren kontra talka egingo bazuen bezala.

-Tak-entzun zen berriz.

Laia, norbait bere logelako leihora harriren bat jaurtitzen ari zela konturatu zen. Hasieran bere lagunetarikoa bat berriz eragozten ari zela pentsatu zuen. Baina leihora gerturatu zenean konturatu zen ez zela horrela, inoiz ikusi ez zuen mutil bat zen, bere etxearen parean bizi zena. Laiak leihoa ireki zuen.

-Nor zara zu? Eta zergaitik ari zara nire leihora harri bat jaurtitzen? - galdetu zion Laiak.

-Kaixo, ni Ekhi naiz, zure bizilagun berria, nire gurasoen lanagatik etorri naiz herri honetara bizitzera. Aspertuta nengoen leihotik begira eta zu ikusi zaitut negarrez, beraz, ondo zeunden jaki nahi nuen.

-Ba bai, primeran nago! - erantzun zion bortitz.

-Ba primeran dagoen batek ez du negar egiten - erantzun zion bestea.

-Bale, onartzen dut, ez nago ondo! Orain dela aste batzuk koma batetik irten nintzen, istripu baten ondoren, eta orain berriz horrelako zerbait gertatzearen beldur naiz. Ez dut kalera irtetzerik ere nahi, baina sakonean nire lagunekin egotea nahi dut, eta lehen bezalakoa izatea. Eta hori gutxi balitz, lehen nire lagunik onena etorri da bisitan, eta garrasika bidali dut etxetik.- aitortu zion Laiak.

-Ostras zelako mobida, sentitzen dut gertatutakoa. Hitzegitea nahi baduzu?

-Ba egia esanda ez legoke gaizki, ez dut inorekin hitzegin honetaz. Zure ustez, nire lagunek zoratuta nagoela uste dute?-galdetu zion Laiak.

-Ez dakit, baina nire ustez, kalera irtetzen saiatu beharko zenuke.

Ekhi eta Laia luze egon ziren hitz egiten, Laiak aholku batzuk eskatu zizkion Ekhiri. Ekhi bere iritzia eman zion Laiari.

Aste horretan ere, egunero hitz egin zuten. Itsasok, logelako atearen atzetik entzuten zuen dena eta pixkat lasaiago zegoen, behintzat norbaitekin hitz egiteko aukera zuen Laiak. Gainera, Laia gero eta alaiago ikusten zuen. Laia, pixkanaka pixkanaka Ekhirekin konfiantza hartzen zebilen eta gainera Ekhi gustoko zuen, esan dezakegu Ekhitaz maitemintzen ari zela. Orduan, egun batean Laiak logelako leihoa zabaldtu eta hau esan zion.

-Ekhi, Ekhi!-egin zuen garrasi Ekhi leihoa irekitzeko.

-Zer Laia?-erantzun zion bestea leihoa ireki ondoren.

-Nik uste dut jada kalera irteteko prest nagoela eta lagunekin gelditzeko. Baina, beldur naiz nire lagunek zer esango didaten, beraz, mesede bat eskatu behar dizut, nirekin etorri ahal zara?

-Laia, asko pozten naiz, noski lagunduko zaitudala. Bihar arratsaldean hondartzako eskaileretan, 18.00etan?

-Bai, primeran, agurr!

Hurrengo egunean, Laia esandako moduan hondartzako eskaileretara joan zen 18:00etan. Urrunera Lur eta bere lagunak ikusi zituen, baina nahiago izan zuen, Ekhi itxaron eta gero biak elkarrekin joatea. Baina hori ez zen gertatu, Ekhi ez zen agertu, eta hori Laia 30 minutuz egon zela itxaroten. Orduan, Laia bere etxerantz joaten hasi zen, baina atzetik Lurrek jarraitu zion

-Laia! Laia! - garrasika Lur Laiaren atzetik korrika.

-Kaixo, barkamena eskatu nahi dizut bestean gertatu zenagatik. Heriotzaren beldur naiz, beldur handia neukan, eta ez nuen nahi kalera irtetzea edo lagunekin egoterik ere. Baina orain, beldur hori gainditu dut pixka bat -erantzun zion Laiak lotsati samar.

-Lasai Laia, ulergarria da. Nahi duzu gurekin volley jolastera etortzea?

-Bai, baina zer pentsatuko dute beste lagunak? Ez dute pentsatzen zoratuta nagoela?

-Ez du axola besteek pentsatzen dutena, goazen jolastera, eta konturatuko dira ez zaudela zoratuta.

Azkenean Laia eta Lur beste lagunekin jolastera joan ziren. Baina nahiz eta oso ondo pasatu, oso haserre zegoen Ekhirekin, Laiak guztiz konfiatzen zuen berarengan eta huts egin zion, bere laguntza gehien behar zuen momentuan. Beraz, nahiz eta gaua izan, Laiak bere logelan zeukan harritxo batzuk hartu eta Ekhi leihora kolpatu zuen hauekin, Ekhi irtetzeko asmoz.

-Zergatik ez zara etorri? zugar konfiantza osoa nuen - galdetu zion Laiak haserre.

-Barkatu azken momentuko zerbait sortu zait eta ezin izan naiz joan.

-Zer gertatu zaizu, zure lagunak planen bat egin dute eta salduta utzi nauzu?

-Ez, ez dizut egia osoa esan hasieratik, baina orain dena kontatuko dizut. Ez naiz etorri, herri honetara nire gurasoen lanagatik, baizik eta, gaixotasun larri bat daukadalako eta hau sendatzeko tratamendu bat hemen ondoko herri bateko ospitalean dagoelako. Eta gaur ez naiz agertu hondartzan, azken momentuan ospitalera joan behar izan naizelako.

Laiari egia kontatu zionean Laiak ez zuen jakin zer esan, beraz isilik egon ziren bigarren batzuk. Baina ondoren Ekhi zer moduz joan zen dena galdetu zion eta Laiak arratsaldean gertatutakoa kontatu zion. Gaurkoan ere denbora luzez egon ziren hizketan, eta Ekhi ere bere gaixotasunari buruzko gauzak kontatu zizkion.

Egun batzuetan hitz egiten jarraitu zuten, eta biak Laiaren lagunekin ere hondartzan jolasean ibili ziren. Laia lagun guztiekin adiskidetu zen eta Ekhirekin zuen konexioa sendotu zuen. Baina goiz batean Ekhi notizia triste bat eman zion, herritik joan beharra zuen bi hilabetez, tratamendu hobe bat zeukan ospitale bat zeukan hiri batera. Hiri hori urrun zegoen. Hala ere, Ekhi hitz eman zion sendatutakoan berriz bueltatuko zela herrira bizitzera eta lagunak izaten jarraituko zutela.

Negarrez agurtu baziren ere, azkar pasa ziren bi hilabeteak. Ekhi guztiz sendatuta itzuli zen herrira eta beraien harremana eta konfiantza handitu zen. Laia poliki-poliki betiko neska alai eta ausarta bihurtu zen, bere lagunak lagun!